

# Zernola Olinpidaren edizio berri bat abian jarri du Elhuyarrek

**DBHKO 1. ETA 2. MAILAKO IKASLEEI DAGO ZUZENDUTA**

Ekimenak zientzia ikastea gazteentzat dibertigarria izan daitekeela erakustea du helburu

IRUÑEA. Elhuyar Fundazioak 4. Zernola Olinpiada jarri du abian Euskal Herriko DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat. Lehiaketa honen helburua da gaztetxoei erakustea zientzia dibertigarria dela. Olinpiada urrian hasi eta maiatzean amaituko da, eta amaieran hainbat sari banatuko dira. Lehenengo bi gela irabazleek aterpetxe baterako bi eguneko egonaldia irabaziko dute, Arabako eta Bizkaiko foru aldundi esker; hirugarren sailkatuak, aldiz, Sobronerako txango bat irabaziko du, Sobron Abentura taldeari esker; eta, han, kanoan ibiltzeko eta abentura-parkean jolasteko aukera izango dute. Dagoeneko eman daiteke izena [www.zernola.net](http://www.zernola.net) atarian.

Lehiaketan parte hartuko duten gelek [www.zernola.net](http://www.zernola.net) atarian argitaratuko den zientziaren inguruko proba bat gainditu beharko dute hiler, urria eta apirila bitartean. Probak gelakide guztien artean egiteko dira. Erantzuna landutakoan, posta elektronikoko bidez bidali beharko dute [zernola@elhuyar.com](mailto:zernola@elhuyar.com) helbidera. Olinpiada-amaierako sariek gain, hiler banatzen ditu sariak Elhuyar Fundazioak.

Berriak, Donostiako Aquariumek, Gaztetxulo aldizkariak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, Zientziaren Kutxaguneak, Kukuxumusuk eta Karpin Abenturak eskaintako sariak jasoko dituzte aurten hilabete bakoitzeko probak ondoen egiten dituzten ikasgelek. Lan irabazleak [www.zernola.net](http://www.zernola.net) atarian egongo dira ikusgai. Olinpidaren bukaeran, parte-hartzaileek elkar ezagutzeko auke-



Jaso ikastolako ikasleak, azken Zernola Olinpidaren irabazleak, saria jasotzen. ARGAZKIA: ELHUYAR FUNDAZIOA

ra izango dute Iruñeko planetarioan egingo den festa batean.

**LAUGARREN EDIZIOA** 2002-2003 ikasturtean jarri zen lehenengo aldiz martxan Zernola Olinpiada, eta

iazko ekitaldian Euskal Herriko 61 ikasgelak hartu zuten parte. III. Zernola Olinpiadan parte-hartzaileak, besteak beste, zientzia-kazetari, ilargian galdutako astronauta eta saguzarren ikertzaile izan ziren.

## 'Teknoskopia' asmatzaile sariketa

Azaroan egingo den aurtengo Zientzia eta Teknologiaren Astearen barruan, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleentzako sariketa bat jarri du abian Elhuyar Fundazioak, Teknoskopia, asma-tzaile gazteentzako sariketa alegia. Sariketa horretarako, ingurune adimendun gaia hartu dute ardatz eta gehienez lau laguneko taldeek hartu ahal izango dute parte. Elhuyar Fundazioak, Fagorren babesari esker antolatzen du Teknoskopia izeneko asmatzaile-gazteentzako sariketa hau. "Gaur egun ikertzaile ugari ari dira mundu osoan teknologiarekin komunikatu ahal izateko bideak ikertzen, eta beste asko ari dira horietan oinarrituz erabili ahal izango ditugun aplikazioak asmatzeko lanean", dio sariketaren antolatzaileak, Garazi Andonegik. "Asmatzeko, ordea, lehenengo imajinatu egin behar dugu; ideia batetik abiatu behar dugu", gaineratzen du Andonegik. "Hori da, hain zuzen ere, Teknoskopia proposatzen duen erroka: ikertzaile-lana egitea". Gazte parte-hartzaileek imajinatu behar dute ingurune adimendun arloan lanean ari diren iker-tzaileak direla. Ikertzen denbora luze ibili ondoren, gizartearentzako aurrerapauso handia ekarriko duen asmakuntza bat aurkitu beharko dute. >D.N.

"Zernola Olinpiadan, ZN lagunek, beren abildadeak azaltzeaz gain, praktikan jarri behar dute eskolan natur zientzietako, teknologiatik eta matematikako irakasgaietan ikasten dutena, eta ikaragarri ondo pasatzen dute, gainera", azaltzen du Zernola atariaren arduradun Aitziber Lasak.

"Orain arteko esperientziaren arabera, Zernola olinpiada oso motibagarria izan da bai ikasleentzat eta bai irakasleentzat. Elhuyar Fundazioan, gainera, oso gogoan hartzen ditugu irakasleak, eta haien eskakizunak zintzo betetzen ditugu, ikasleentzako jarduera erakargarria ez ezik, irakasleentzako tresna erabilgarria ere izan dadin Olinpiada", gaineratzen du.

Bestalde, Euskal Kultur Erakundeak eta Elhuyar Fundazioak *Euskal Herriko Aurpegiak* izeneko DVDa ekoitzi berri dute. Produktu honen helburua Euskal Herriaren ikuspegi orokorra eta laburra eskaintzea izango da. >D.N.

# Bertsolaritzari buruzko foroa jarri du abian Bertsozale Elkarteak

**IRITZIAK ETA EGITASMOAK INTERNET BIDEZ TRUKATZEKO ASMOAREKIN JAIO DA ATARI BERRI HAU**

IRUÑEA. Abian da jadanik bertsolaritzari buruzko estreineko foroa Interneten. Bertsozale Elkarteak sustatutako foroa [www.bertsoforo.com](http://www.bertsoforo.com) helbidean dago, eta lotura zuzenak daude era berean [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) eta [www.txapelketanagusia.com](http://www.txapelketanagusia.com) webguneetatik.

Foroaren jaiotza Txapelketa Nagusiaren zurrunbilan sortua izan da eta hari buruzko atala barnebiltzen duen arren, bere egitekoa ez da horretara bakarrik mugatzen.

Aitzitik, bertsozaleen komunitatea eskura izango duen topagune egonkorra izateko asmoa du.

Foroa atalka dago antolatua, hain zuzen ere bost kategoriatan ezberdin izango dituelarik. Lehena Txapelketa Nagusiari eskeina egongo da Bertso Txapelketako egunetan gaudenez, berari buruz hitz egitea proposatzen da.

Bigarren atalak Bertsolaritza orokorrean izenburua darama eta Bertsolaritza txapelketaren gainetik dago, atal honetan bertsolariek, bertso saioez etab. bertsolaritzarekin lotutako edozein gauzaren inguruan hitz egingo da.

Bertso Eskolak izeneko izango da hirugarren atala, bertso eskolen arteko eztabaidentzat tokia delarik,



Iñaki Murua. ARGAZKIA: BERTSOZALE ELK.

haien arteko harremanerako, elkarrekin osatzeko ekintzetarako, bertso eskolen sareari buruz hitz egiteko eta elkarren berri izateko.

Lorontzia izena darama laugarren atalak, bertso-eskoletako ikasleon territorio librea dela uste baitu Bertsozale Elkarteak, mezuak bidali, zita bereziak jarri, bertsoak elkartrukatu izanik beronen eginkizunak.

Azkenik, Kafetegia deritzon atala bertsolaritzarekin zerikusirik izan ez arren, jakinmina sortzen duten gaiak ala arazoak jorrazteko gunea izango da.

Foroak bertsozaleen komunitate eskura izango den topagune egonkorra izateko asmoa du, batetik. Hartara, iritzi trukaketaz gainera, baliabideak partekatze eta egitasmoak elkarren artean osatzeko tresna ere izan nahi du. Mundu osoko bertsozaleek badute jadanik non topatu era erraz eta eskuragarri batean bertso munduko iritziak. >I.F.

KRITIKA > LITERATURA

## Harrapanzank

**ETA EZ ZEN ALERIK ERE GERATU (HAMAR BELTX)**

**Izenburua:** Eta ez zen alerik ere geratu (Hamar beltx). **Jatorrizko izenburua:** And Then There Were None. **Egilea:** Agatha Christie. **Itzultzailea:** Koro Navarro. **Argitaratze urtea:** 2005. **Argitaletxea:** Igelak.

A. IRIZAR

**H**ILTZAILE bat, leku batean bakartutako pertsona batzuk, korapiloa azkenera arte askatu ia ezina, misterioa... Agatha Christieren lanen ezaugarri gehientsuenak biltzen ditu eta ez zen alerik ere geratu honek. Dozenaka hilketa-nobela idatzi zituen autore ingelesak, eta honako hau, Igelak argitaletxearen Enigma saillean argitaratu berria, ezagunetakoa eta hoberenetakoa dugu. Agatha Christiek 1939an idatzi zuen eta ez zen alerik ere geratu, eta Roger Ackroyden hilketa liburuarekin 1926an gertatu bezala (esan dezagun, bide batez, iaz sail berean argitaratu zuela liburu hori Igelak), nobela honek ere ordura arte misteriozko nobeletan arau ziren batzuk hautsi eta mugarririk bihurtu zen. Horrela, esate baterako, ez da agertzen kasua argitzen duen detektiberik, eta justiziak ere ez du hiltzaile harrapatzen.

*Locked room mystery* erako nobelatzaile jo dezakegu Eta ez zen alerik ere geratu: pertsonaiak leku batean irten ezinik daude uharte batean, kasu honetan, hiltzaile horietako bat da, nahiz eta ezinezkoa dirudien, eta irakurleari datu guztiak ematen zaizkio misterioa argitzen saia dadin ez du lan erraza izango, hala ere. Kontakizuna Ingalaterrako kostaldeko uharte txiki batean gertatzen da. Han biltzen dira elkar ezagutzen ez duten hamar lagun, eta banan-banan hilda agertzen hasten dira. Uhartean ekaitza dela eta isolaturik, beraietako batek behar du, halabeharrez, hiltzaile hori jakiteak, eta hilketak iragarritako egoteak, nolabaiteko estatusan sentipena sorrarazten du, eta liburu honek badu, beharbada, Agatha Christieren beste liburu batzuek ez duten thriller ukitu bat.

Esan behar da liburu hau euskaraz argitaratzen den bigarren aldia dela. Aurreko itzulpena Txertoa argitaletxeak argitaratu zuen orain dela hamalau urte, 1991n; orduko hartan, Hamar beltx izenburupean argitaratu zen. Oraingoan, aldiz, mingarria ez gertatze aldera ingelesez nagusitu den izenburuari jarraikiz, Eta ez zen alerik ere geratu izenburuarekin heldu zaigu. Orduan bezala, orain ere, Koro Navarrok sinatu du itzulpena. Hori horrela, pentsa lezake norbaitek ez dela aldaketa handirik egingo, testua berdintsua izango dela. Ez, ba: alde handia dago; askoz ere hobea da oraingoa. Eta hori euskara idatziak azken urteotan egin duen aurrerabide izugarriaren erakusgarri dugu; izan ere, askoz ere finkatuagoa dago euskara idatziaren eredu gaur egun, eta hori, noski, itzulpenetan ere islatzen da. Irakurleak, beraz, ez du aitzakiarik misterio-nobela ezagun honi heldu eta hiltzaile nagusien asmatzen ez saiatzeko, baina, betiere, azken orria begiratu gabe...